

22 JOTA TXAPELKETA

Leioako Udala 2024



Leioako Udalak, Txikiak Txiki eta Gure Ohiturak herriko dantza taldeekin batera, "Leioako Udala" XXII. Jota Txapelketan parte hartzera gonbidatzen zaituzte. Hona hemen lehiaketaren oinarriak:

1. Lehiaketa ekainaren 16an, igandea, 12:00etan izango da, Udaletxeko Plazan.
2. Nahi duten bikote guztiak parte hartu ahal izango dute eta horretarako baldintza bakarra ohiturak agintzen duen bezala jantzita joatea izango da.
3. Bi maila ezarri dira: Gazteen maila 16 urte baino gutxiagoko dantzariak eta Nagusien maila, 16 urte baino gehiagoko dantzariak.
4. Gehienez 10 bikote onartuko dira maila bakoitzeko. Kopuru hori gaintuz gero, antolatzaileen esku geratuko da bikote gehiago onartzearen erabakia.
5. Ekitaldian zein ordena jarraituko den erabakitzeko, zozketa egingo da txapelketa hasi aurretik, zozketan egon ezean bikoteek hasierako postuetan parte hartuko dute.
6. Bikote bakoitzak txistuz lagundutako fandangoa eta Trikitiaz lagundutako Arin- Arina dantzatu beharko du.
7. Erritmo biotan erabili beharko dira gutxienez hiruna dantzapausu ezberdin. Nagusiek 8 dantzapausu eta gazteek 6 dantzapausu.
8. Euskal herriko musika eta dantzeekin harremana duten lagunek osatuko dute epaimahaia eta puntuak emateko orduan, honako hauek hartuko dituzte kontuan: pausak - teknika, koordinazioa – mugimendua espazioan, melodia - erritmoa, alderdi artistikoa – transmisioa eta akatsak.
9. Epaimahaiak erabakitakoari ezin izango zaio aurka egin, eta oinarri hauek ulertzeko zalantzaren bat izanez gero, edo lehiaketan ustekaberen bat gertatuz gero, gaizki ulertze edo ustekabe horien gainean epaimahaiak erabakia hartuko du. Epaimahaiaren irizpidea izango da une oro kontuan hartuko dena.
10. Parte hartu nahi dutenek izena emateko orria bete beharko dute. Izena emateko orria posta bidez bidal daiteke, baita behean agertzen den helbidera bidaliz ere, edo posta elektronikoz bestela. **KULTUR LEIOA José Ramón Aketxe, 11 · 48940 LEIOA (Bizkaia).**
11. Izena emateko epea **2024ko ekainaren 6an, osteguna**, bukatuko da, 18:00etan.
12. Txapelketa egunean bikoteek NANA edo Familia Liburua aurkeztu beharko dute, originala edo fotokopia.
13. Beren beregi adierazi da parte hartzaile bakar batek ere ezin izango dituela bi sari jaso. Bi kategoriatarako ondoko sari hauek ezarri dira:

NAGUSIEN MAILA

1. saria: 300 euro eta txapela.
2. saria: 230 euro eta oroigarria.
3. saria: 210 euro eta oroigarria.

GAZTEEN MAILA

1. saria: 220 euro eta txapela.
2. saria: 180 euro eta oroigarria.
3. saria: 150 euro eta oroigarria.

14. Epaimahaiak, lehiakideen mailaren arabera, maila bakoitzean aipamen berezi bat emateko aukera izango du.
15. Irabazle suertatzen ez diren bikote nagusi guztiak 110 euroko dirusaria jasoko dute eta bikote gazteek 100,00 euroko dirusaria.
16. Lehiaketan gerta daitezkeen ustekabeak direla-eta, edo lehiaketaren beharrianak direla-eta, antolatzaileek lehiaketaren egitura aldatzeko eskubidea izango dute. Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek oso osorik onartzea esan nahi du.
17. Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, txapelketan Leioako Udalak hartutako irudiak eta izen-emate fitxa honetako datu pertsonalak fitxategi batean sartuko dira. Fitxategi horren arduraduna Leioako Udala izango da (IFK: P4806400J; helbidea: Elexalde auzoa, 1, 48940 – LEIOA, BIZKAIA). Fitxategi horrek irudiak tratatu ahal izango ditu, eta dokumentu honetan finkatutako moduan eta helbururako erabili. Datu horien hartzailea erantzule hori baino ez da izango, eta ez du datu horien lagapenik egingo, tratamenduaren erantzuleei tratamenduan aipatzen diren zerbitzuak ematen laguntzen dieten jakinarazpenak izan ezik. Tratamendu horren oinarri juridikoa adostasuna bera da, eta edozein unetan kendu ahal izango da, baina hori ez dago lotuta egun horretara arte egindako tratamendu legitimoarekin. Irudi horiek bildu ziren helburua betetzeko baino ez dira gordeko, eta erantzulearen aurka erabil ditzakeen eskubideak preskribatzen ez diren bitartean, epe luzeagoa ezartzen duen araurik ez. Edozein unetan erabil ditzake datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko, aurka egiteko, mugatzeko eta eramateko eskubideak, alkatetza@leioa.eus helbidera bidalitako idazki baten bidez. Halaber, eskubidea du erreklamazio bat aurkezteko, datu pertsonalen tratamendua indarrean dagoen araudiarekin bat ez datorrela uste badu, kontrol-agintaritzan (www.agpd.es).

Informazioa:

KULTUR LEIOA · T.: 94 607 25 70 · José Ramón Aketxe, 11 · 48940 LEIOA (Bizkaia) · infokultur@leioa.eus



BIKOTEA

NAGUSIEN MAILA

GAZTEEN MAILA

1. PARTAIDEA.....

2. PARTAIDEA.....

IZENA EMATEKO ORRIA Datu pertsonalak

1. PARTAIDEA

Izen- abizenak:

Deiturak

Helbidea: Herria:

Probintzia: P.K. : Telefonoa:

Jaioteguna: E-mail:

2. PARTAIDEA

Izen- abizenak:

Deiturak

Helbidea: Herria:

Probintzia: P.K. : Telefonoa:

Jaioteguna: E-mail:

